



Iturrimorro Parke berriak bertan egoteko eta aisialdirako gunea eskaintzen dau, zalantza barik, baina hori ez da dana. Izan be, Udalak gimnasia-aparailuak kokatu dauz parkearen ibilbidearen inguruan. Dagoeneko, edonork erabilteko moduan dagoz eta hortaz kirol praktika osasuntsua praktiketako beste espazio bat irabazi dau geure herriak.

Hirugarren adinekoentzat bereziki aproposak dira jarritako tresnak, horien bitartez eskuak, besoak, gerria eta hankak lantzeko aukerea baitago.

Tankera honetako aparailuak hainbat txokotan kokatu dabez azken urteotan Bizkaian zehar eta emaitzak oso onak izan dira, jendeak positibotzat jotzen baitu kalean modu erosoan ariketa osasungarriak burutzeko aukerea edukitzea. Ganera, pertsona askorentzat adiskideak egiteko edo jada direnekin aritzeko posibilitatea izatea be aparailu hauen beste alderdi ona da.

Goza daigun, beraz, Iturrimorro. Ibilteko, egoteko, kirola egiteko... ta laster ibilbide etnografikoa ere ikusgai.

Parke ederra...
eta osasuntsua!



El parque Iturrimorro ofrecerá un paseo etnográfico

Una vez acometida la primera fase de los trabajos del nuevo parque Iturrimorro, el Ayuntamiento quiere poner en marcha la segunda fase del proyecto, que consiste en hacer del parque un paseo etnográfico. Para ello, prevé realizar las siguientes actuaciones:

- > Colocar el herratoki que estaba antes en el jardín de la escuela.
- > Hacer una bolera.
- > Hacer un kirikiñausi, una pequeña construcción hecha con piedra donde se guardaban las castañas.
- > Utilizar el material didáctico creado en las anteriores ediciones de la Euskal Jaia, como pueden ser los paneles ilustrativos sobre castañas y manzanas (tipos, usos...), así como la prensa y utensilios para hacer sidra.



El objetivo es convertir el parque en un lugar que dé cabida a estos y otros interesantes elementos etnográficos que sirvan para acercar nuestra riqueza cultural a jóvenes y mayores.



Udalekuak Areatzan

Areatzako Udalak, familia eta lanaldia uz-tartzeko asmoz, eta umeen gozameneko, Udalekuak eskainiko. Uztailaren 2tik 13ra izango dira eta ordutegia 9:00etatik 14:00etara izango da herriko leku desbardinetan. Zerbitzua Suspergintza elkarteak eskainiko dau, gizarte-heziketan esperientzia handiko enpresak alegia. Horrela izanik, Suspergintzak, gurasoentzako bilera antolatuko dau ekainaren 28an, 19.00etan ludotekan, programa azaltzeko. Guk badogu zer aurreratu, dena den. Udalekura doazen gazteak hiru taldetan banatuko dira (3-5 urtekoak, 6-10 urtekoak eta 11-14 urtekoak) eta adin bakoitzari egokitutako ekintzak antolatuko dira, hala nola tailerrak, joko olinpikoak, Lip Dub baten grabaketa, txangoak hondartzara eta Burturiako Biodibertsitate zentrora... etabar.

Inskribatzeko eta prezioa

Apuntatzeko epea ekainaren 15ean bukatuko da. Udaletxean apuntatu behar da (9:30etatik 15:00etara) inskripzio-orria bete eta ordainketa gauzatu. Areatzako Udalak lokalak eta azpiegiturak eskaintzen ditu Udalekuetarako eta gastu guztiaren atal handia ordaintzen du zerbitzuaren prezioa ahalik eta merkeena izan dadin. Hori dela eta, haur bakoitzeko finkatutako prezioa 50 eurokoa da.

Ludoteka eta Gaztelekuaren ebaluazioa

Areatzako ludoteka eta gaztelekua martxoan jarri ziren martxan. Orain, udako oporretan, itxita egongo dira baina urrian barriz be bueltan izango doguz.

Ludotekari dagokionez, hilabete hauetan, 88 umeek hartu dabe parte. Ludotekan hainbat tailer eta joko burutu dabez: udaberriari agurra emateko murala, gatzarekin marrazki poteak, logelarako izen kartelak, lagun muralak, marrazki lehiaketa, joko kooperatiboak... eta kurtsoa ixteko azken festa be ospatu eben. Gaztelekuan, esparrua sortu, antolatu, apaindu eta taldeak egiteko helburuak erdietsi dira. Horretarako, asteburuero 20-25 gaztek gazteleku barruan zer jarri erabaki dabe, eta baita arauak adostu, muralak eta marrazkiak egin eta hauek eskegi dabez. Ekintzei jagoenez, kirol txapelketak, talde jokoak eta filmak disfrutau dabez. Honeek be, kurtsoa festa batekin bukatu eben. Udan, zerbitzuari jarraipena emateko, udalekuetan alkartuko dira barrio Areatzako gazteak, jokoak, txangoak eta tailerrak burutuz.



Adi datorrenera!!!

PALENQUE ERAKUSKETA ludotekan

- > Ekainak 15: 19:30etatik 21:30etara
- > Ekainak 16, 17, 23 eta 24: Goizean 12.00etatik 14.00etara eta arrastetan 19.00etatik 21.00etara.

SAN JUAN GAUA

- > Ekainak 23: San Juan sua Zubizaran.

SANTO TOMAS

- > Uztailak 3: Jaia Hospitaloste inguruan.

Tak21 de Plata a la Agenda Local 21 de Areatza

Udalsarea 21, la Red de Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad, ha reconocido y valorado la buena calidad de la Agenda Local 21 de Areatza otorgándole el Premio Tak21 de Plata 2012. Este reconocimiento se otorga en función del proceso de calidad global de las Agendas Locales 21 de Euskadi.

El acto, celebrado el pasado día 4 de junio en el Centro de Biodiversidad de Euskadi, contó con la presencia de varios representantes de municipios y otras instituciones de la CAPV, entre ellas, Pilar Unzalu, Consejera de Medio Ambiente, Ordenación del Territorio, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, que fue quien otorgó el Premio Tak21 de Plata al alcalde de Areatza.

Fueron galardonados con el Tak21 de Oro 2012 los municipios de Legazpi y

Durango, mientras que Amurrio, Areatza, Donostia-San Sebastián, Tolosa, Vitoria-Gasteiz y Zarautz se hicieron con el Tak21 de Plata. Por tanto, es digno de mención el hecho de que Areatza sea, junto a Durango, el único pueblo de Bizkaia que figura entre los premiados, lo cual, teniendo en cuenta lo que se galardona y la dimensión de Areatza, es muy positivo.

Impulso a una labor

En esta primera edición han participado 47 municipios, el 25% de los miembros de la red Udalsarea 21. Areatza



El alcalde, Josu Basozabal, recogió el galardón de la mano de la Consejera de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, Pilar Unzalu.

es miembro de Udalsarea 21 desde 2005. En el seno de la Red comparte y genera conocimiento y recursos que contribuyen a mejorar el medio ambiente y la calidad de vida de los y las ciudadanas. El galardón obtenido viene a destacar la importante labor que se realiza desde nuestro ayuntamiento para reforzar en valor nuestra agenda local 21.

Zer da Tak21?



Tak21 Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate globala neurtzen eta aitortzen duen neurketa sistema da, gure udalerrien errealitatera egokitua. 40 irizpide eta 100dik gora adierazlerekin Agenda 21en barneko prozesu guztiak neurtzen ditu. Gainera, kalite hobereana erakusten duten Tokiko Agendak saritzen ditu, beti ere, lortutako emaitzen arabera.

Udalsarea 21ek sortutako eta sustatutako auditoretza sistema da eta sareko kide diren Udalerrien Tokiko Agenda 21en prozesuen kudeaketa ereduaren parte da. Kalitate globala Tokiko Agenda 21en prozesu bakoitzaren 5 ezaugarri hauen arabera neurtzen da: Estrategiko, Zeharkakoa, Partehartzailea, Operatiboa eta Jasangarria.

Kirola, jokoak eta dantzak, Euskal Jaiaren protagonistak

Urriak 20. Emoten dau hurrundagoala baina konturatu orduko hemen izango dogu, gurean aurton be, Areatzako Euskal Jaia. Horregatik apurka-apurka berau egituratu beharra dago eta horretan dabil, hain zuzen be, herriko lan talde bat.

Jadanik hiru batzar egin dabez eta erabaki batzuk hartu dabez honezkero, aurreneko batzarretik ganera. Izan be, lehenengoan data aukeratu zan, aipatu urriaren 20a, baina baita gaia be. Bertaratutakoek lau gai proposatu ebezan: euskal ezkontza, herri kirolak, antzinako jokoak eta euskal dantzak. Azken hirurak, alegia, kirola, jokoak eta dantza ez al dira, ba, gai osagarriak? Uztartzea posiblea dala ulertuta, antolatzaileek landu beharreko gaiak hautatu dabez 2012ko ediziorako.

Jaiaren programazioan, beraz, arlo ezberdin eta osagarriak izango doguz:

- > Euskal jokoak: antzina eta gaurko jokoak, uztaia, txakolinke, txirikile...
- > Herri kirolak: gure herrian presentzia handia dutenak zein beste batzuk be.
- > Euskal dantza: kalez kale eta jendearen partehartzea bilatuz.

Horrez gain, azoka-postuetan, inguruko ekoizleen produktuekin batera, Areatzan XVI. mendean garrantzi handia izan eben burdin lanak nabarmendu nahi doguz. Beraz, badago zeregina, hemendik aurrera, ta disfrutatzeko, urriaren 20an. Euskal Jaiaren erronka eta hitzordua aurrez aurre dakaguz. Egin daigun bidea!



Propuestas buenas y variadas

Las reuniones sobre la Euskal Jaia están resultando enriquecedoras gracias a la participación de nuestros vecinos y vecinas. A la reunión de mayo asistieron 17 personas con ideas interesantes sobre la metodología y sobre posibles iniciativas a desarrollar en la Euskal Jaia. Así, entre otros temas, se plantearon organizar charlas sobre Gorbea, el trabajo de barrio (auzolana), partidos de cesta punta, desafío entre cuadrillas, comida de putxeras, la implicación de la escuela... etc. También se habló de la necesidad de lograr el compromiso de la 3ª edad para trasladar a los jóvenes, tanto del gaztetxe como de la escuela, información sobre los juegos de antaño, para que ellos los organicen.



Auzokar, hasiera arrakastatsua

Maiatzaren 12an egin zan Auzokar proiektuaren aurkezpena Areatzako plazan eta jende asko inguratu zan informazio bila eta hiru kotxeak ikusteko. Gazteek tailer eta jokoetan be hartu eben parte. Beraz, denpora gitxi daroa abian zerbitzuak baina, halanda be, emaitza positiboa dira. 30 bat areatarrek emon eben izena laster batean kotxe alokairuaren zerbitzua erabilteko eta altak burutu bezain pronto, dagoeneko hasi dira hainbatek erabilten. Hortaz, arrakastaz egin leike berba. Emakumeek zein gizonek ari dira erabilten, diferentzia nabarmenik gabe. Adinari jagokonez, hor bai, gehienak 30-40 urte bitartekoak dira, beraz gazteagoak ere animetako erronka dau. Bitxikeri lez, 73 urteko gizon bat ere bada erabiltzaileen artean.

Jaietarako lanean

Beste urte batzuetan bezala, areatar talde bat lanean ari da apurka-apurka herriko jaiak antolatuteko. Aurten be, programazioa prestatzerako orduan jaietan adin eta gustu guztientzako ekitaldiak eskaintzeko asmoa daukie: umeak, gazteak, 3. adina... danetarik danontzat. Horrela izanda, lehiaketak, erromeriak, pelota partiduak, monologoak, kale antzerkia eta beste hainbat gauza izango doguz edizino hontan. Areatzar guztien parte hartzea da helburua, eta jakina, ondo pasatzea.

Zeuk ere baduzu zer esan. Horregatik, deialdi zabala luzatzen dogu ekainean eta uztailean egingo diran batzarretarako, guztion ekarpena eta laguntza eskertzen baita.